Son quienes, en posesión de conocimientos técnicos y prácticos para la actividad comercial, realizan trabajos que requieren propia iniciativa, tales como redacción de documentos, contratos de transporte, gestión de informes, etc. Estarán en conocimiento de un idioma relacionado con el trabajo que desarrollan.

— Oficial 2.ª

Pertenecen a esta categoría, el empleado que con iniciativa y responsabilidad restringidas y subordinado a un Jefe u Oficial de 1.ª, si los hubiere, realizan trabajos de carácter secundario que solo exigen conocimientos generales de la actividad.

— Auxiliar Comercial de 1.ª

Componen esta categoría, el personal que desarrolla trabajos auxiliares que faciliten los anteriormente expuestos o que tengan un carácter puramente mecánico.

— Auxiliar Comercial de 2.ª

Integra esta categoría el personal que desarrolla trabajos auxiliares que faciliten los anteriormente expuestos o que tengan un carácter puramente mecánico.

IV) Personal subalterno.

— Cobrador.

Es el que, al servicio de una sola empresa o varias del mismo grupo y por cuenta de éstas, tiene la misión de realizar cobros y pagos fuera de las oficinas.

— Portero.

El que vigila la entrada de las distintas dependencias de la empresa, y realiza las funciones y vigilancia, siguiendo las instrucciones que al efecto recibe.

EK\CV GAO-I-2026-06952

— Zaintzailea.

Langile hori enpresako bulegoak eta beste lokal batzuk zaintzeaz arduratzen da. Eginkizun hori gaueko eta eguneko txandetan egingo du, eta, zerbait gertatuz gero, txostena idatzi beharko du.

— Telefonista.

Langile horren zeregin bakarra da enpresaren lokaletan telefono bidez barneko edo kanpoko komunikazioak ezartzea, bai eta jasotzen dituen mezuak eta abisuak hartzea eta igortzea ere.

— Garbitzaileak.

Langile horiek enpresako bulegoak eta lokalak garbitzeaz arduratzen dira.

V) Hainbat zerbitzutako langileak.

— Arduraduna.

Bere eginkizunean espezialista da. Zuzenean jasotzen ditu nagusien aginduak –nagusirik baldin badago–, sail jakin bateko lanak zuzentzen ditu eta lanak nola egin behar diren antolatzeko erantzukizuna du.

— 1. mailako Ofiziala.

Ondo dakizki ohiko lanbideetako bati buruzko nondik norako guztiak, eta lanbide hori ezin hobeto egiten du; hori dela eta, lanbideari dagozkion lan orokorrak egiteaz gain, ahalegin eta fintasun handia eskatzen duten lanak ere egiten ditu.

— 2. mailako Ofiziala.

Lanbide jakin bateko lanak behar adinako zuzentasunez eta eraginkortasunez egiten ditu, nahiz eta ez izan lan perfektuak egiteko eskatzen den espezializazioa.

— Laguntzaile espezializatua.

Langile horrek gutxienez bi urteko antzinatasuna du laguntzaile-lanetan. Trebea da ibilgailuak zamatzen: lana azkar egiten du, espazioa ondo aprobetxatzen du eta kontuan hartzen du segurtasuna.

Halaber, hura arduratuko da merkantzien dokumentuak emateaz: estazio, ibilgailu eta biltegietatik hartu eta bezeroari emango dizkio. Zuzenean gorago dagoen buruari eman beharko dio sarrerako papera, behar bezala izenpetua.

— Laguntzailea.

Langile hori trebea da ibilgailuak zamatzen: lana azkar egiten du, espazioa ondo aprobetxatzen du eta kontuan hartzen du segurtasuna.

Halaber, hura arduratuko da merkantzien dokumentuak emateaz: estazio, ibilgailu eta biltegietatik hartu eta bezeroari emango dizkio. Zuzenean gorago dagoen buruari eman beharko dio sarrerako papera, behar bezala izenpetua.

Artikulu honetako definizioen helburu bakarra da definitutako kategorien funtsezko ezaugarri batzuk ematea. Definizio horiek ez dituzte mugatzen kategoria bakoitzari dagozkion eginkizun guztiak. Eginkizun horiek, hain zuzen ere, sektore honen jardueraren berezitasunen ondorio izango dira.

Definizio horiek enpresan 90-03-28az geroztik sartutako langileei aplikatuko zaizkie. Data horren aurretik kalifikatutako langileek finkatua dute beren kategoria, artikulu honetan definizio bakoitzerako adierazitako eginkizunak zein diren ere.

*24. artikulua. Maila-igoerak.*

Administrari, Produkzio eta Merkataritzako Langileen Ataletako 1. mailako laguntzaileak 2. mailako ofizialen Lanbide-kategoriara igoko dira, atal bakoitzari dagokiona, kategoria horretan zerbitzuak benetan ematen lau urte igaro ondoren.

— Vigilante.

Tiene a su cargo la vigilancia de las oficinas y otros locales de la empresa, en turnos tanto de días como de noche, cursando los partes correspondientes a las posibles incidencias.

— Telefonista.

Comprende esta categoría al personal que, en las distintas dependencias de la empresa, tenga asignada exclusivamente la misión de establecer comunicaciones telefónicas con el interior o con el exterior, tomando y transmitiendo los recados y avisos que recibiera.

— Personal de limpieza.

Son los que se ocupan del aseo y limpieza de las oficinas y Dependencias de la empresa.

V) Personal de servicios varios.

— Encargado.

Es la persona especialista en su cometido que, bajo las órdenes directas de sus superiores, si los hubiere, dirige los trabajos de una sección, con la responsabilidad consiguiente sobre la forma de ordenar la realización de los trabajos a efectuar.

— Oficial 1.ª

Es quién, poseyendo uno de los oficios clásicos, lo practica y aplica con tal grado de profesión que no solo le permite llevar a cabo trabajos generales del mismo, sino aquellos otros que suponen especial empeño y delicadeza.

— Oficial 2.ª

Es quien, sin llegar a la especialización exigida para los trabajos perfectos, ejercita los correspondientes a un determinado oficio con la suficiente corrección y eficacia.

— Mozo especializado.

Es el trabajador que, teniendo una antigüedad de al menos 2 años como Mozo, tiene adquirida una práctica en la carga de vehículos, realizándola con toda rapidez y aprovechamiento de espacio y seguridad.

Se hará cargo igualmente, de llevar el documento de las mercancías para retirarlo de las estaciones, vehículos y almacenes y trasladarlo al cliente, debiendo entregar a su Jefe inmediato, el volante de entrada debidamente firmado.

— Mozo.

Es el trabajador que tiene adquirida una práctica en la carga de vehículos, realizándola con toda rapidez y aprovechamiento de espacio y seguridad.

Se hará cargo igualmente, de llevar el documento de las mercancías para retirarlo de las estaciones, vehículos y almacenes y trasladarlo al cliente, debiendo entregar a su Jefe inmediato, el volante de entrada debidamente firmado.

Las definiciones del presente artículo pretenden tan sólo recoger los rasgos fundamentales de las categorías definidas, sin agotar las funciones asignadas a cada una de ellas que en todo caso serán las derivadas de las peculiaridades de la actividad en el presente sector.

Las expresadas definiciones son de aplicación al personal ingresado a partir del 28-03-90. El personal calificado con anterioridad a dicha fecha tiene consolidada su categoría independientemente de las funciones señaladas en este artículo para cada definición.

*Artículo 24.º Ascensos.*

Los Auxiliares de 1.ª, de las Secciones de Personal Administrativo, Producción y Comercial, ascenderán a la categoría profesional de Oficiales de 2.ª, correspondiente a cada sección, a los cuatro años de prestación efectiva de servicios en dicha categoría.

EK\CV GAO-I-2026-06952

Administrazioko langileak-, Ekoizpen- eta Merkataritza-saileko 2. mailako laguntzaileak sail bakoitzari dagokion 1. mailako laguntzailearen lanbide-kategoriara igoko dira, kategoria horretan bi urtez benetan lan egin ostean.

Laguntzaileak laguntzaile espezializatuaren lanbide-kategoriara igoko dira, kategoria horretan bi urtez benetan lan egin ostean.

*25. artikulua. Mugikortasun geografikoa.*

Langileak izango dira enpresako beste lantoki batera aldatzera behartu, aldaketa horrek bizilekuz aldatu behar izatea eragiten badu.

Arrazoi teknikoak, antolamenduzkoak edo produkziozkoak direla eta, enpresak langile bat lekualdatu nahi badu, artikulu honetan ezartzen den prozedurari jarraitu beharko dio:

a) Aldez aurretik jakinaraziko zaie sindikatuetako ordezkariei eta eragindako langileari, eta lekualdaketaren arrazoiak azalduko zaizkie.

b) Batzorde bat eratuko da, enpresaren eta langileen ordezkariek osatua, kasu bakoitza banan-banan aztertzeko.

c) Batzorde hori ados jartzen ez bada, Precoren arbitraje-prozedurara joko da, aldeek akordio bat egin ezean.

VI. KAPITULUA

*26. artikulua. Aldi baterako kontratazioa.*

Enpresek hilero eman beharko diote langileen ordezkaritzari epe horretan egin diren iraupen jakineko kontratuen informazioa.

Informazio horrek langileen izena, kontratazio-modalitatea, kontratuen indarraldia, eta lanbide-kategoria bildu beharko ditu. Kontratuetan egindako luzapenei buruz ere informazio bera eman beharko da.

VII. KAPITULUA

*27. artikulua. Jarduera sindikala.*

— Langileen delegatuak.

Langileen delegatuek hilean ordainduriko 15 orduko kreditua izango dute ordezkaritza-eginkizunak betetzeko.

— Enpresako Sindikatu-atalak.

Legez eratutako sindikatu batean afiliatuta dauden enpresa edo lantoki bateko langileek enpresako sindikatu-atal bat eratu ahal izango dute.

— Sindikatu-atalen bermeak eta funtzioak.

a) Hurrengo artikuluan ezarritako afiliazio-baldintzak betetzen dituzten enpresako sindikatu-atalak enpresa mailako itunak edo hitzarmenak negoziatzeko legitimatuta egongo dira, enpresa horietako langileek gehiengoz horrela erabakitzen badute.

b) Sindikatu- edo lan-gaiei buruzko argitalpenak eta oharrak zabaldu ahal izango dituzte enpresako lokaletan, bai eta beren sindikatuetako kideen kotizazioak bildu ere, eta ezin izango zaie oztoporik jarri afiliazio sindikalarekin lotutako lanetan, baina eskubide horiek baliatzeak ezin izango dio lanari edo ekoizpenaren martxa orokorrari trabarik egin.

c) Ordezkari sindikalen edo enpresa-batzordeko kideen hauteskundeetarako hautagaiak proposatzea.

Los Auxiliares de 2.ª, de las Secciones de Personal Administrativo, Producción y Comercial, ascenderán a la categoría profesional de Auxiliares de 1.ª, correspondiente a cada sección, a los dos años de prestación efectiva de servicios en dicha categoría.

Los Mozos ascenderán a la categoría profesional de Mozo Especializado a los dos años de prestación efectiva de servicios en dicha categoría.

*Artículo 25.º Movilidad geográfica.*

Los trabajadores no podrán ser trasladados a un centro de trabajo distinto, de la misma empresa, que exija cambios de residencia.

En caso de que, por razones técnicas, organizativas o de producción, la empresa quiera trasladar a un trabajador, se deberá seguir el procedimiento que en este artículo se establece:

a) Notificación previa a la representación sindical y al trabajador afectado, con indicación de los motivos del traslado.

b) Constituir una comisión integrada por representantes de la empresa y de los trabajadores, con el objeto de estudiar cada caso individualmente.

c) En el caso de que la Comisión no llegue a un acuerdo, se resolverá, en la modalidad de arbitraje, en el Preco, salvo que se alcance un acuerdo entre las partes afectadas.

CAPÍTULO VI

*Artículo 26.º Contratación temporal.*

Las empresas deberán entregar mensualmente a la representación de los trabajadores información de los contratos de duración determinada celebrados en dicho periodo.

En dicha información deberá constar nombre de los trabajadores, modalidad de la contratación, vigencia de los contratos y categoría profesional. Igual información deberá facilitarse sobre las prórrogas de los contratos realizados.

CAPÍTULO VII

*Artículo 27.º Actividad sindical.*

— Delegados de Personal.

Los Delegados de Personal dispondrán de un crédito horario mensual de 15 horas retribuidas para el ejercicio de sus funciones de representación.

— Secciones Sindicales de Empresa.

Los trabajadores de una empresa o centro de trabajo afiliados a una Central Sindical legalmente constituida podrán constituir una Sección Sindical de Empresa.

— Garantías y funciones de las Secciones Sindicales de Empresa.

a) Las Secciones Sindicales de empresa que cumplan los requisitos de afiliación establecidos en el artículo siguiente, estarán legitimadas para negociar Convenios o Pactos de empresa, cuando así lo decidan por mayoría los trabajadores de dichas empresas.

b) Podrán difundir publicaciones y avisos de carácter sindical o laboral en los locales de la empresa, recaudar las cotizaciones de sus afiliados y no podrán ser obstaculizadas en sus tareas de afiliación sindical, sin que el ejercicio de tales derechos pueda interferir el trabajo o la marcha general de la producción.

c) Proponer candidatos en las elecciones sindicales para cubrir los puestos de Delegado Sindical o miembros del Comité de Empresa.

EK\CV GAO-I-2026-06952

d) Ordezkari sindikalak hautatzea, enpresaren zuzendaritzaren aurrean afiliatuen interesak defendatzeko eta enpresa-hitzarmenak edo -itunak negoziatzeko, artikulu honetako a) letrako baldintzak betetzen badituzte.

e) Aditu sindikalisten zerbitzuak erabiltzea laneko gaietarako (negoziazio kolektiboa, soldata-berrikuspenak, enplegua erregulatzeko espedienteak eta abar), enpresaren datuak eskuratzeko aukera izanda.

f) Enpresako atal sindikalek afiliatuen bilerak egin ahal izango dituzte enpresako lokaletan, lan-orduetatik kanpo. Bilera horietara, sindikatuko arduradun batek bertaratu ahal izango du, enpresari aldez aurretik jakinarazita.

g) Falta astunak edo oso astunak direla eta, afiliatutako langileren bati diziplina-zehapenik ezarri behar bazaio, enpresak, interesdunari idazki arrazoitua emateaz gain, kopia bat eman beharko dio langilearen atal sindikalari (ordezkari sindikalari, halakorik balego), 48 ordu lehenago.

h) Hurrengo artikuluan adierazten diren baldintzak betetzen dituzten enpresako atal sindikalek ordaindu gabeko 15 egun arteko lizentzia izango dute, sindikatuen biltzarretan, prestakuntza-ikastaroetan eta antzeko jardueretan parte hartzeko. Lizentzia-egun horiek erabiltzeko, aurretik jakinarazi beharko da, 72 ordu lehenago gutxienez.

*28. artikulua. Atal sindikalek enpresan sindikatu-jarduerak egin ahal izateko baldintzak.*

Enpresa edo lantoki bakoitzean enpresa-tamaina bakoitzarentzat adierazitako gutxieneko ehunekoak biltzen dituzten enpresako atal sindikaletako ordezkariek ordu ordainduen gehienezko kopuru bat izango dute hilean, sindikatu-jarduerak egiteko, taula honen arabera:

— 6 langiletik beherako enpresetan, gutxienez 2 afiliatu badituzte: ordezkari sindikal bat izendatu ahal izango dute, ordaindutako ordurik izan gabe.

— 6-15 langile dituzten enpresetan, gutxienez langileen % 25eko afiliazioa badute: ordezkari sindikalek hilean ordaindutako 10 ordu izango dituzte (urteko kopuruan), sindikatu-jarduerak egiteko.

— 15 langiletik gora dituzten enpresetan, gutxienez langileen % 20ko afiliazioa badute: ordezkari sindikalek hilean ordaindutako 15 ordu izango dituzte (urteko kopuruan), sindikatu-jarduerak egiteko.

Artikulu honetan xedatzen ez denerako, ordezkari sindikalek indarreko legediak langileen delegatuentzat eta enpresa-batzordeetako kideentzat xedatzen dituen eskubide, berme eta betebehar berdinak izango dituzte.

Artikulu honetan jasotako afiliazio-baldintzak betetzen dituzten atal sindikalek aurreko artikuluko a), d) eta h) letretan xedatutakoa baliatu ahal izango dute.

## VIII. KAPITULUA

*29. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.*

* Printzipio arautzaileak.

Enpresaren zuzendaritzak zehatu ahal izango ditu langileen egite edo ez-egite errudunak, kontratuan jasotako laneko betekizunak ez betetzea dakartenean, honako artikulu hauetan ezartzen diren falten mailaketaren arabera.

Enpresari dagokio zehapenak ezartzea, bere zuzendaritza-ahalmena erabiliz, hitzarmen honetan ezarritako moduan.

Falten zehapena idatziz jakinarazi beharko zaio langileari, eta idazkian, zehapena eragin duten gertakariak eta haien data adierazi beharko dira.

d) Elegir Delegados Sindicales que representen a los afiliados ante la Dirección de la empresa y negocien Convenios o Pactos de empresa siempre que se cumplan los requisitos recogidos en el apartado a) de este artículo.

e) Utilizar los servicios de expertos sindicalistas en los temas laborales, como negociación colectiva, revisiones salariales, expedientes de regulación de empleo, etc., con acceso a los datos de la empresa.

f) Las Secciones Sindicales de empresa, podrán realizar reuniones de sus afiliados en los locales de la empresa, fuera de las horas de trabajo. A las reuniones podrá acudir, previa notificación a la empresa, un responsable de la Central Sindical.

g) En el supuesto de faltas graves o muy graves contra cualquier trabajador afiliado, caso de darse medidas disciplinarias, la empresa, junto al escrito razonado al interesado, entregará copia a la sección sindical a la que pertenezca, en la persona del Delegado Sindical, si existiera, con 48 horas de antelación.

h) Las Secciones Sindicales de empresa que cumplan los requisitos de afiliación señalados en el artículo siguiente, dispondrán para el conjunto de los afiliados, hasta un máximo de 15 días anuales de licencia no retribuida, para asistencia a Congresos de su Central, cursos de formación y actividades análogas. La utilización de dichos días de licencia requerirá la preceptiva notificación con al menos 72 horas de antelación.

*Artículo 28.º Requisitos de las secciones sindicales para la acción sindical en la empresa.*

Los Delegados de las Secciones Sindicales de empresa que agrupen como mínimo en cada empresa o centro de trabajo, los porcentajes mínimos que para cada tamaño de empresa se señalan, dispondrán de un máximo de horas retribuidas al mes para la acción sindical, según el cuadro siguiente:

— Empresas de menos de 6 trabajadores, con un mínimo de 2 afiliados: podrán nombrar Delegado Sindical sin horas retribuidas.

— Empresas con plantilla entre 6 y 15 trabajadores con un porcentaje mínimo de afiliación del 25 por ciento: dispondrán los Delegados Sindicales de 10 horas retribuidas al mes para la acción sindical en cómputo anual.

— Empresas de más de 15 trabajadores, con un porcentaje de afiliación del 20 por ciento: dispondrán los Delegados Sindicales de 15 horas retribuidas al mes para la acción sindical en cómputo anual.

En lo no previsto en el presente artículo, los Delegados Sindicales tendrán los mismos derechos, garantías y obligaciones que la legislación vigente establece para los Delegados de Personal y Miembros de Comités de Empresa.

Las Secciones Sindicales que cumplan con los requisitos de afiliación señalados en este artículo, podrán hacer uso de lo recogido en los párrafos a), d) y h) del artículo anterior.

## CAPÍTULO VIII

*Artículo 29.º Infracciones y sanciones.*

* Principios ordenadores.

La Dirección de la empresa podrá sancionar las acciones u omisiones culpables de los/as trabajadores/as que supongan un incumplimiento contractual de sus deberes laborales, de acuerdo con la graduación de las faltas que se establece en los artículos siguientes.

Corresponde a la Empresa en uso de la facultad de Dirección, imponer sanciones en los términos estipulados en el presente Acuerdo.

La sanción de las faltas requerirá comunicación por escrito al/a trabajador/a, haciendo constar la fecha y los hechos que la motivaron.

EK\CV GAO-I-2026-06952

Falta astun eta oso astunengatik ezartzen dituen zehapen guztien berri emango die enpresak langileen legezko ordezkariei.

Zehapena ezarri ondoren, 60 eguneko epea egongo da hura betetzeko, zehapena ezarri zen egunetik aurrera.

* Falten mailaketa.

Langileek egiten dituzten falta guztiak honela sailkatuko dira, garrantziaren edo asmoaren arabera: falta arinak, astunak edo oso astunak.

— Falta arinak.

Honako hauek hartuko dira falta arintzat:

a) Lanera garaiz ez sartzea, edo lanetik behar baino lehenago ateratzea, justifikaziorik gabe, hilean hiru aldi arte.

b) Hilabeteko epean egun batean lanera ez joatea, justifikaziorik gabe.

c) Lanera joango ez dela aldez aurretik ez jakinaraztea edo, bestela, hurrengo 24 orduetan ez jakinaraztea, hori egitea ezinezkoa izan dela egiaztatzen denean izan ezik.

d) Inolako arrazoi justifikaturik gabe, denbora-tarte laburrez zerbitzua edo lanpostua uztea, horren ondorioz aintzat hartzeko moduko kaltea eragiten bazaie pertsonei edo gauzei.

e) Langileen ardurapeko lan-ekipoen eta lan-materialen Kontserbazioan edo mantentzean narriadura arinak eragitea.

f) Enpresaren bezeroak edo hornitzaileak behar bezala ez tratatzea, edo haiekiko arretarik ezaz jokatzea.

g) Enpresari ez ematea etxebizitza-aldaketaren edo helbide-aldaketaren berri, betiere horrek lankideei edo enpresari nahasketarik edo kalterik eragin badiezaieke.

h) Behar den garaian ez jakinaraztea langilearen familian izandako aldaketak, baldin eta Gizarte Segurantzan edo zerga-administrazioan eragina badute.

i) Langilearen eguneroko eginkizunetan nagusiren batek emandako jarraibideak, aginduak edo mandatuak ez betetzea dakarten falta guztiak, betiere pertsonei edo gauzei kalterik edo arriskurik eragiten ez badiete.

j) Lanaldi arruntaren barruan ematen diren prestakuntza teorikorako edo praktikorako ikastaroetara ez joatea, dagokion justifikaziorik gabe.

k) Lankideekin, bezeroekin edo hornitzaileekin eztabaidatzea lanaldiaren barnean.

l) Lanean mozkortuta egotea edo drogak kontsumitzea, jokabide hori ohikoa izan gabe.

— Falta astunak.

Honako hauek falta astuntzat hartuko dira:

a) Lanera berandu iristea edo lanetik behar baino lehenago irtetea, justifikatu gabe, hilean hiru alditan baino gehiagotan.

b) Inolako justifikaziorik gabe lanera ez joatea bi egunetik lau egunera bitarte, hilabete batean. Lanera ez joateak lankideren baten txandari eragiten baldin badio edo enpresari nolabaiteko kaltea eragiten baldin badio, nahikoa izango da lanera behin huts egitea.

c) Zerga-arloan edo Gizarte Segurantzan eragina duten datuak faltsutzea edo nahita ezkutatzea.

d) Laneko orduetan jolasean edo denbora-pasan aritzea, behin eta berriro, eta hala, lanaren martxari kalte egitea.

La empresa dará cuenta a la representación legal del personal de toda sanción por falta grave y muy grave que se imponga.

Impuesta la sanción, el cumplimiento temporal de la misma se podrá dilatar hasta 60 días después de la fecha de su imposición.

* Graduación de las faltas.

Toda falta cometida por los/as trabajadores/as se clasificará en atención a su trascendencia, o intención en: Leve, grave o muy grave.

— Faltas leves.

Se considerarán faltas leves las siguientes:

a) La impuntualidad no justificada en la entrada o en la salida del trabajo de hasta tres ocasiones en un período de un mes.

b) La inasistencia injustificada de un día al trabajo en el período de un mes.

c) No notificar con carácter previo, o en su caso, dentro de las 24 horas siguientes, la inasistencia al trabajo salvo que se pruebe la imposibilidad de haberlo podido hacer.

d) El abandono del servicio o del puesto de trabajo sin causa justificada por períodos breves de tiempo, si como consecuencia de ello, se ocasionase perjuicio de alguna consideración en las personas o en las cosas.

e) Los deterioros leves en la conservación o en el mantenimiento de los equipos y material de trabajo de los que se fuera responsable.

f) La desatención o falta de corrección en el trato con los y las clientes o proveedores de la empresa.

g) No comunicar a la empresa los cambios de residencia o domicilio, siempre que éstos puedan ocasionar algún tipo de conflicto o perjuicio a sus compañeros/as o a la empresa.

h) No comunicar con la puntualidad debida los cambios experimentados en la familia del/a trabajador/a que tengan incidencia en la Seguridad Social o en la Administración tributaria.

i) Todas aquellas faltas que supongan incumplimiento de prescripciones, órdenes o mandatos de un o una superior/ra en el ejercicio regular de sus funciones, que no comporten perjuicios o riesgos para las personas o las cosas.

j) La inasistencia a los cursos de formación teórica o práctica, dentro de la jornada ordinaria de trabajo, sin la debida justificación.

k) Discutir con los compañeros/as, con los/as clientes o proveedores dentro de la jornada de trabajo.

l) La embriaguez o consumo de drogas no habitual en el trabajo.

— Faltas graves.

Se consideran faltas graves las siguientes:

a) La impuntualidad no justificada en la entrada o en la salida del trabajo en más de tres ocasiones en el período de un mes.

b) La inasistencia no justificada al trabajo de dos a cuatro días, durante el período de un mes. Bastará una sola falta al trabajo cuando ésta afectara al relevo de un compañero/a o si como consecuencia de la inasistencia se ocasionase perjuicio de alguna consideración a la empresa.

c) El falseamiento u omisión maliciosa de los datos que tuvieran incidencia tributaria o en la Seguridad Social.

d) Entregarse a juegos o distracciones de cualquier índole durante la jornada de trabajo de manera reiterada y causando, con ello, un perjuicio al desarrollo laboral.

EK\CV GAO-I-2026-06952

e) Organikoki goragoko mailan dauden pertsonek bere jardun normalean emandako aginduak edo mandatuak ez betetzea, baldin eta pertsonengan edo gauzetan eragin larria badu.

f) Norberaren txukuntasunik eta garbitasunik eza, betiere horrek lankideen kexa justifikatuak eragiten baditu, eta aldez aurretik enpresak behar bezala ohartarazi badu langilea.

g) Beste langile bat iruzurrez ordeztea, laneko sarrera edo irteerako erregistroak eta kontrolak aldatuz.

h) Lanean arduragabekeriaz edo utzikeriaz jokatu eta laneko martxa onari eragitea, betiere pertsonei edo gauzei kalte larriren bat sortzen ez bazaie.

i) Enpresaren baimenik gabe lan partikularrak egitea lanaldian, bai eta enpresako tresnak, lanabesak eta makineria edo ibilgailuak erabiltzea norberaren edo besteren kontuetarako, are lanalditik kanpo ere.

j) Hiruhileko batean, falta arinak behin baino gehiagotan egitea (garaiz ez etortzea salbu), mota desberdinekoak izan arren eta betiere tartean zehapena izan dela.

k) Langileen sexu-askatasunaren aurkako eraso oro, hitzezko irainen zein irain fisikoen bidez, edo pertsonen intimitate edo duintasunarekiko errespetu-faltaren bidez.

l) Mozkorraldi edo drogen kontsumo ezohikoak, baldin eta horrek lanean eragin negatiboa badu, edo langileen laneko segurtasunaren eta osasunaren babes-mailan kalte edo arriskuren bat eragiten badu.

— Oso falta astunak.

Falta hauek hartuko dira oso astuntzat:

a) Lanera garaiz ez sartzea edo lanetik behar baino lehenago irtetea, sei hileko epean hamar alditan baino gehiagotan edo urtebetean hogei alditan baino gehiagotan, behar bezala justifikatu gabe.

b) Hilabete berean hiru egunetan segidan edo tartekako bost egunetan lanera ez joatea.

c) Agindutako egitekoetan iruzur egitea, leialtasunik ezaz jokatzea edo konfiantzaz aprobetxatzea, eta enpresari, lankideei edo edozein pertsonari lapurtzea, indarkeriaz nahiz gabe, enpresaren egoitzan edota edozein lekutan, lanorduetan bada.

d) Gaixotasun-itxura edo istripu-itxura egitea. Adierazitako edozein arrazoirengatik langilea bajan egonik, edozein motatako lanak egiten baditu bere kontura edo beste baten kontura, laneko arau-haustetzat hartuko da. Oso falta astuntzat hartuko dira, gainera, istripua edo gaixotasuna dela-eta hartutako baja luzatzeko egindako manipulazioak.

e) Arrazoi justifikaturik gabe zerbitzua edo lanpostua abandonatzea, denbora gutxirako izanda ere, horren ondorioz enpresari edo lankideei kalte nabarmena eragin, segurtasuna arriskuan jarri edo istripua eraginez gero.

f) Enpresan nahitaez isilpean gorde behar diren sekretuak urratzea.

g) Enpresaren aurkako lehia desleiala dakarten jardueretan aritzea.

h) Laneko errendimenduan, lan normala edo adostutakoa baino gutxiago egitea, nahita eta etengabe.

i) Hitzezko edo egintzazko tratu txarrak ematea, bai eta nagusiak edo horien senideak, lankideak, eta enpresako hornitzaile eta bezeroak errespetu eta begirunerik gabe tratatzea ere.

j) Falta astuna berriro egitea, nahiz eta falta horiek desberdinak izan, faltak bi hilabeteko epean egiten badira eta falta bakoitzarengatik zehapena jaso bada.

e) La desobediencia a las órdenes o mandatos de las personas de quienes se depende orgánicamente en el ejercicio regular de sus funciones, siempre que ello ocasione o tenga una trascendencia grave para las personas o las cosas.

f) La falta de aseo y limpieza personal que produzca quejas justificadas de los compañeros/as de trabajo y siempre que previamente hubiera mediado la oportuna advertencia por parte de la empresa.

g) Suplantar a otro/a trabajador/a, alterando los registros y controles de entrada o salida al trabajo.

h) La negligencia o desidia en el trabajo que afecte a la buena marcha del mismo, siempre que de ello no se derive perjuicio grave para las personas o las cosas.

i) La realización sin previo consentimiento de la empresa de trabajos particulares, durante la jornada de trabajo, así como el empleo para usos propios o ajenos de los útiles, herramientas, maquinaria o vehículos de la empresa, incluso fuera de la jornada de trabajo.

j) La reincidencia en la comisión de falta leve (excluida la falta de puntualidad) aunque sea de distinta naturaleza, dentro de un trimestre y habiendo mediado sanción.

k) Cualquier atentado contra la libertad sexual de los/as trabajadores/as que se manifieste en ofensas verbales o físicas, falta de respeto a la intimidad o la dignidad de las personas.

l) La embriaguez o consumo de drogas no habituales, si repercute negativamente en el trabajo o constituyen un perjuicio o peligro en el nivel de protección de la seguridad y salud de los/as trabajadores/as en el trabajo.

— Faltas muy graves.

Se considerarán faltas muy graves las siguientes:

a) La impuntualidad no justificada en la entrada o en la salida del trabajo en más de diez ocasiones durante el período de seis meses, o bien más de veinte en un año.

b) La inasistencia al trabajo durante tres días consecutivos o cinco alternos en un período de un mes.

c) El fraude, deslealtad o abuso de confianza en las gestiones encomendadas y el hurto o robo, tanto a sus compañeros/as de trabajo como a la empresa o a cualquier otra persona dentro de las dependencias de la empresa, o durante el trabajo en cualquier otro lugar.

d) La simulación de enfermedad o accidente. Se entenderá que existe infracción laboral, cuando encontrándose en baja el/a trabajador/a por cualquiera de las causas señaladas, realice trabajos de cualquier índole por cuenta propia o ajena. También tendrá la consideración de falta muy grave toda manipulación efectuada para prolongar la baja por accidente o enfermedad.

e) El abandono del servicio o puesto de trabajo sin causa justificada aún por breve tiempo, si a consecuencia del mismo se ocasionase un perjuicio considerable a la empresa o a los compañeros/as de trabajo, pusiese en peligro la seguridad o fuese causa de accidente.

f) El quebrantamiento o violación de secretos de obligada confidencialidad de la empresa.

g) La realización de actividades que impliquen competencia desleal a la empresa.

h) La disminución voluntaria y continuada en el rendimiento del trabajo normal o pactado.

i) Los malos tratos de palabra u obra, la falta de respeto y consideración a sus superiores o a los familiares de éstos, así como a sus compañeros/as de trabajo, proveedores y clientes de la empresa.

j) La reincidencia en falta grave, aunque sea de distinta naturaleza, siempre que las faltas se cometan en el período de dos meses y hayan sido objeto de sanción.

EK\CV GAO-I-2026-06952

k) Laneko edozein arlotan nagusiek emandako agindu eta mandatuak ez betetzea, horrek enpresari edo lankideei kalte nabarmena eragiten baldin badio, eta agindu horiek ematean nagusikeriaz jokatu ez bada, behintzat. Nagusiaren agintekeriatzat hartuko dira zuzendaritzako langileek eta erdi-mailako buruek edo agintedunek legezko aginduak nabarmen eta nahita hautsiz eta langileei kalte eraginez egindakoak.

l) Laneko nagusitasun-egoeraz baliatuta, askatasun sexualaren kontra egiten diren erasoak, edo egoera pertsonalagatik edo lan-egoeragatik bereziki ahulak diren pertsonen aurka egiten direnak.

* Zehapenak.

Adierazitako faltak egiteagatik ezarri ahal izango diren gehieneko zehapenak honako hauek dira:

a) Falta arinengatik:

Idatzizko kargu-hartzea.

b) Falta astunengatik:

Idatzizko kargu-hartzea.

Bi egunetik hogei egunera bitarteko aldian enplegua eta soldata kentzea.

c) Oso falta astunengatik:

Idatzizko kargu-hartzea.

Hogeita bat egunetik hirurogei egunera bitarteko aldian enplegua eta soldata kentzea.

Kaleratzea.

* Preskripzioa.

Falten mailaketaren arabera, honako egun kopuru hauek igaro ondoren preskribatuko dira:

Falta arinak: hamar egun.

Falta astunak: hogei egun.

Oso falta astunak: hirurogei egun.

Enpresak faltaren berri duen egunetik aurrera hasiko da zenbatzen falta horien preskripzio-aldia, eta, edonola ere, falta egin eta handik sei hilabetera.

## IX. KAPITULUA

*30. artikulua. Xurgatzea, konpentsatzea eta baldintzarik onuragarrienak.*

Hitzarmen honetan ezarritako osagarri, soldata eta baldintza sozialak eta profesionalak xurgatu eta konpentsatu egin daitezke, lehendik hitzartutako edozein motatako hobekuntzen bidez, eta, era berean, baldintza onuragarriagoak dituztenei dagokienez, baldintza onuragarrienak errespetatuko dira.

*31. artikulua. Legeria osagarria.*

Hitzarmen honetan arautzen ez denerako, Errepidezko Merkantzien Garraioaren Lan Ordenantzan ezarritako baldintzak aplikatuko dira –ordenantza hori erreproduzitutzat ematen da–, baldin eta ordenantza horrek indarreko legeria urratzen ez badu.

*32. artikulua. Batzorde mistoa.*

Hitzarmen kolektibo hau aplikatzean eta interpretatzean sor daitezkeen desadostasunak hitzarmen honen batzorde paritarioaren esku jarriko dituzte aldeek. Espresuki uko egiten zaio tramitazio hori egiten den aldian presio-neurriak erabiltzeari.

Hitzarmenaren sinatzaileek batzorde paritario bat eratuko dute, gehienez 8 kidekoa: 4, langileen ordezkarien aldetik; eta 4, enpresaren aldetik. Helbidea Lan Harremanen Kontseiluaren Gipuzkoako lurralde-egoitzan egongo da (une honetan: Javier Bar-

k) La desobediencia a las órdenes o mandatos de sus superiores en cualquier materia de trabajo, si implicase perjuicio notorio para su empresa o sus compañeros/as de trabajo, salvo que sean debidos al abuso de autoridad. Tendrán la consideración de abuso de autoridad, los actos realizados por directivos/as, jefes/as o mandos intermedios, con infracción manifiesta y deliberada a los preceptos legales, y con perjuicio para el/a trabajador/a.

l) Los atentados contra la libertad sexual que se produzcan aprovechándose de una posición de superioridad laboral, o se ejerzan sobre personas especialmente vulnerables por su situación personal o laboral.

* Sanciones.

Las sanciones máximas que podrán imponerse por la comisión de las faltas señaladas son las siguientes:

a) Por faltas leves:

Amonestación por escrito.

b) Por faltas graves:

Amonestación por escrito.

Suspensión de empleo y sueldo de dos a veinte días.

c) Por faltas muy graves:

Amonestación por escrito.

Suspensión de empleo y sueldo de veintiuno a sesenta días.

Despido.

* Prescripción.

Dependiendo de su graduación, las faltas prescriben a los siguientes días:

Faltas leves: diez días.

Faltas graves: veinte días.

Faltas muy graves: sesenta días.

La prescripción de las faltas señaladas empezará a contar a partir de la fecha en que la empresa tuvo conocimiento de su comisión y, en todo caso, a los seis meses de haberse cometido.

## CAPÍTULO IX

*Artículo 30.º Absorción, compensación y condiciones más beneficiosas.*

Los complementos, salarios y condiciones socio - profesionales fijados en el presente Convenio, podrán ser objeto de absorción y compensación por las mejoras de todo tipo que con anterioridad se hubiesen acordado, del mismo modo que serán respetadas las condiciones más beneficiosas para aquellos que así vinieran disfrutándolas.

*Artículo 31.º Legislación complementaria.*

Todo lo no regulado en este texto, se regirá por las condiciones establecidas en la Ordenanza Laboral de Transportes de Mercancías por Carretera, que se da por reproducida, siempre que no conculque la Legislación vigente.

*Artículo 32.º Comisión mixta.*

Las discrepancias que puedan surgir de la aplicación e interpretación del presente Convenio Colectivo serán sometidas por las partes a la Comisión Paritaria de este Convenio, con renuncia expresa a la utilización de medidas de presión en tanto no se produzca dicha tramitación.

Se constituye una Comisión Paritaria formada por los firmantes del Convenio con un máximo de 8 miembros, 4 por la parte social y 4 por la parte empresarial, fijándose su domicilio en la Sede territorial de Gipuzkoa del Consejo de Relaciones Laborales,

EK\CV GAO-I-2026-06952

kaiztegi kalea 19 behea, Donostia-San Sebastián) eta jakinarazteko helbide elektronikoa precogipuzkoa@crlv.net izango da.

Hitzarmenaren batzorde negoziatzaileak onartu egiten du Gatazka Kolektiboak Konpontzeko Borondatezko Prozedurei buruzko Konfederazio arteko Akordioa (Preco II), Eusko Jaurlaritzako Lan Zuzendaritzaren 1990eko ekainaren 26ko Ebazpenaren (uztailaren 3ko *Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, 131. zk.) eta haren Testu Berrikusiaren (1994ko apirilaren 14koa) bidez argitaratua.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehena. Hitzarmen honetan itundutako lan-baldintzak ez aplikatzea eta lan-baldintzen funtsezko aldaketa.*

Hitzarmen honek indarrean jarraitzen duen bitartean, hitzarmen kolektibo hau behin-behinean ez aplikatzeko (arrazoi ekonomiko, tekniko, antolakuntzako edo ekoizpenekoen ondorioz) eta hitzarmen honetan itundutako baldintzak deuseztatzeko, enpresen aldetik, honako baldintza hauek bete beharko dira:

1) Enpresek 15 eguneko kontsulta-aldia zabalduko dute gai hauek aztertzeko: enpresak hartutako erabakiaren arrazoiak, erabakiaren ondorioak saihesteko edo murrizteko aukerak, eta erabakiak langileei eragingo dizkien ondorioak arintzeko neurriak. Epe beraren barruan, hitzarmenaren batzorde paritarioari jakinarazi beharko zaio zer erabaki den, eta langileen legezko ordezkaritzari formulatutako idatziaren kopia gehituko da.

Kontsulta-aldian fede onez negoziatu behar dute aldeek, akordio bat lortzeko. Akordiora iristeko, enpresa-batzordeko edo -batzordeetako kideen, langileen delegatuen, edo, egon balego, ordezkaritza sindikalen gehiengoaren adostasuna behar da, guztien artean gehiengoa ordezkatzen badute.

Kontsulta-aldian enpresaren eta langileen ordezkarien artean izandako negoziazioetan adostasuna lortuko balitz, akordio horren berri eman beharko zaio batzorde paritarioari.

2) Kontsulta-aldia amaiturik, desadostasunak baldin badaude, aldeetako edozeinek hitzarmenaren batzorde paritarioaren esku jarri ahal izango du auzia. Batzordeak, gehienez ere, zazpi egun izango ditu erabakia hartzeko, desadostasuna jakinarazi zaionetik kontatzen hasita.

3) Batzorde Paritarioan desadostasuna gertatuz gero, edozein aldek jo ahal izango du, bost eguneko epean, 2000ko otsailaren 16ko Gatazkak Konpontzeko borondatezko Prozeduren gaineko Konfederazioen arteko Akordiora (Preco) (*Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria*, apirilaren 4koa).

Espresuki xedatzen da hitzarmena ez aplikatzea aldeek adostuta egin beharko dela, egiten diren aldaketa legalak direnak direlakoak izanda ere, eta arbitraje-prozedura aplikatzeko, ezinbesteko baldintza dela bi aldeen gehiengoa prozedura horren mende jartzearekin ados egotea.

Enpresaren batek hitzarmen kolektiboa aldi batean ez aplikatzeko asmoa badu (arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolamendukoak edo ekoizpenekoak direla-eta), langileen ordezkariekin horretarako akordiorik lortzen ez badu, eta gatazkak konpontzeko lanbide arteko akordio aplikagarrien prozeduretara jota ere desadostasuna konpontzen ez bada, bi aldeen arteko akordioa beharko da (enpresaren ordezkaritzaren eta langileen ordezkaritzaren gehiengoaren arteko akordioa, alegia), hitzarmena ez aplikatzeari buruzko desadostasuna Orpricceren esku jartzeko (edo, hala dagokionean, CCNCCren esku).

sita en este momento en c/ Javier Barkaiztegi, 19 bajo Donostia-San Sebastián y dirección a efecto de notificaciones precogipuzkoa@crlv.net.

La Comisión Negociadora del Convenio asume el Acuerdo Interconfederal sobre Procedimientos Voluntarios de Resolución de Conflictos Colectivos (Preco II) publicado mediante Resolución del 26 de junio de 1990 de la dirección de Trabajo del Gobierno Vasco (*Boletín Oficial del País Vasco* n.º 131, del 3 de julio de 1990 y su Texto Revisado del 14 de abril de 1994).

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera. Inaplicación –descuelgue– de las condiciones de trabajo pactadas en el presente convenio y modificación sustancial de las condiciones de trabajo.*

Mientras persista la vigencia del presente convenio, la inaplicación temporal del presente Convenio Colectivo (por motivos económicos, técnicos, organizativos o de producción) y el descuelgue de las condiciones pactadas en el presente Convenio, por parte de las empresas, se formulará en las siguientes condiciones:

1.º) Las empresas abrirán el período de consultas de 15 días que versará sobre las causas motivadoras de la decisión empresarial y la posibilidad de evitar o reducir sus efectos, así como sobre las medidas necesarias para atenuar sus consecuencias para los trabajadores afectados. Debiendo en el mismo plazo, poner en conocimiento de la Comisión Paritaria del Convenio, acompañándose copia del escrito formulando a la representación Legal de los trabajadores.

Durante el período de consultas, las partes deberán negociar de buena fe, con vistas a la consecución de un acuerdo. Dicho acuerdo requerirá la conformidad de la mayoría de los miembros del comité o comités de empresa, de los delegados de personal, en su caso, o de representaciones sindicales, si las hubiere, que, en su conjunto, representen a la mayoría de aquellos.

De producirse acuerdo en las negociaciones desarrolladas durante el período de consultas establecido entre la empresa y la representación de personal, éste deberá ser comunicado a la Comisión Paritaria.

2.º) En caso de desacuerdo finalizado el periodo de consultas, cualquiera de las partes podrá, en el plazo de cinco días, someter la discrepancia a la Comisión paritaria del convenio que dispondrá de un plazo máximo de siete días para pronunciarse, a contar desde que la discrepancia fuera planteada en la Comisión paritaria.

3.º) En el supuesto de desacuerdo en la Comisión paritaria, cualquiera de las partes podrá, en el plazo de cinco días, acudir para solventar las discrepancias, el Acuerdo Interconfederal sobre procedimientos voluntarios de Resolución de Conflictos (Preco) de 16 de febrero de 2000 (*Boletín Oficial del País Vasco* de 4 de abril).

